

Segmentazioa

Gure enpresa gehien bat zuzenduta dago teknologia berrien erabilera egokia ikasi eta gainera berarekin jolastu eta entretenitu nahi duten pertsonari. Horrekin batera, hainbat zerbitzu desberdin eskainiko ditugu bezeroaren beharren arabera. Beraz, segmentatutako merkatu batean jardungo dugula esango dugu.

Lehenik eta behin, gure enpresaren ikuspuntutik, adineko pertsonak, normalean, internetik gabe egon dira haien bizitza osoan zehar, hori dela eta, arlo berri honetan sartzeko momentuan galduta sentitu daitezke, beraz, gure ikastaroak baliagarriak izango dira pertsona horientzat. Teknologia berri hauek erabiliaz oinarritzko ezagutza batzuk eman nahi dizkiegu pertsona hauei, hala nola, mugikorreko birusak ezabatzen, email bat bidaltzen, erosketak egiten internetez... Bestetik, gailuen segurtasuna bermatzeko, hala nola, hijacking (konputagailu-sareen arloan, lapurtzeko edo jabe (informazioa eskuarki) egiteko legez kanpoko teknika guztiei deritzo), phishing (iruzurraren munduko delituari erreferentzia egiten dion hitz informatiko bat da), malware-ak (software gaizto bat adierazten du) saihesteko edota birusak ekiditeko segurtasun kurtsoak eskainiko genituzke.

Gazteei dagokienez, haientzat bideratutako ikastaroak ditugu, batez ere, bideo-jokuetan trebatzeko kurtsoak. Gaur egun, interneteko jokoek milioika euro mugitzen dituzte, eta ondorioz, taldeetan antolaturiko kirol lehia moduko bat bihurtzen ari dira. Gure enpresak talde horiek sortzeko asmoa du, gazteak, pasioak mugitzen dituzenez, ideia hau haientzat erakargarria dela uste baitugu.

Bestetik gazte hauentzat bestelako formazioa ere eskainiko dugu: programazioa, informatikako oinarritzko ikasketak edo aurreratuagoak.

